BIZITEGI ERAIKINA — ARRASATE 22

D MAILA



Egilea eta data: Jose Clemente de Osinalde; 1899

Deskribapena

Kantoiko eraikina, behe oina, jatorrizko lau goi oin eta bi jasodura atzeraeman (lehenengo jasoduraren edo 5. oinaren pergola izan ezik) dituena. Fatxada harlandua, kantoiko alakan zurezko begiratokia duena lehen hiru oinetan. Lehen oina balkoirik gabe. Behe oineko baoen eraberritzea 1893an eta 1919an; gaur egun berriz eraldatu dira eta zati batez xaflatu, irizpide unitariorik gabe.

Babes erregimena

1. Erregimen orokorra:
   Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
   Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
2. Berariazko erregimena.
   A. Babesetik kanpo utzitako kanpo elementuak edo zatiak: jasodurak (5. eta 6. goi oinak).
   B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
   C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
      * Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritakora egokituko da.
      * Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak, hala badagokio.